



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.01.28an EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

MAITE ANTON LENO

OÑATI

**BOKALAK**

GARAZI LARREA ZUMELAGA  
UNAI ELKORO OIANGUREN  
AINHOA CABERO GARCIA  
MARIA UBARRETXENA CID  
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA  
ANDER GARAY ZABALETA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
AINHOA LETE ZABALETA  
CRISTINA MARQUINA IGARZA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA  
EUGENIO OTSOA UGALDE  
IZARO ELORZA ARREGI  
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

ARITZ MURUA ACHA

ARRASATE

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2020ko urtarrilaren 28an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

### 1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2019ko abenduaren 17an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

### 2.- ZERBITZU OROKORRAK

#### 2.1.- 2020ko Aurrekontu Orokorraren, Plantila Organikoaren eta lanpostuen Zerrendaren hasierako onespena

2020. ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren behin betiko zirriborroa aurkeztu du kontu-hartzaileak.

Idazkariak ohartarazi du Mankomunitateko Estatutuen 25. artikulua araberako Aurrekontu Orokorra onartzeko gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar dela.

Hainbat datu argitu ondoren, Gobernu Juntak, 9 Juntakideren aldeko botoekin (Maite Antón, Garazi Larrea, Gorka Artola, Ainhoa Lete, Cristina Marquina, Iraitz Lazkano, Eugenio Otsoa, Izaro Elorza eta Anik Zubizarreta) eta 6 abstentziorekin (Unai Elkoro, Ainhoa Cabero, Maria Ubarretxena, Maitane Muñoz, Ander Garay eta Jose Ramón Zubizarreta) ZERA ERABAKI DU:

1. Hasierako onespena ematea Mankomunitateak 2020. ekitaldirako Aurrekontu Orokorrari, kapituluaren arabera ondorengo laburpenarekin:

### GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Pertsonal gastuak	2.538.795,39 €
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak	6.494.386,98 €
3	Finantza gastuak	100,00 €
4	Transferentzia arruntak	353.143,27 €
6	Inbertsio errealak	295.001,00 €



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

7	Kapital transferentziak	0,00 €
8	Aktibo finantzarioak	10.820,00 €
9	Pasibo finantzarioak	162.753,36 €
	<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>9.855.000,00 €</b>

### SARREREN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Zuzeneko zergak	0,00 €
2	Zeharkako zergak	0,00 €
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.444.437,00 €
4	Transferentzia arruntak	7.818.542,26 €
5	Ondarezko sarrerak	18.694,38 €
6	Inbertsioen salmenta	2.500,00 €
7	Kapital – transferentziak	433.253,36 €
8	Aktibo finantzarioak	137.573,00 €
9	Pasibo finantzarioak	0,00 €
	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>9.855.000,00 €</b>

2. Aurrekontua gauzatzeko araua onartzea.
3. Pertsonal Batzordeak proposatutako 2020. urterako Plantila Organikoari eta Lanpostuen Zerrendari ere Aurrekontuarekin batera hasierako onespena ematea.
4. 2020ko Aurrekontuaren, Plantilaren eta Lanpostuen Zerrendaren espedienteak 15 lanegunez jendaurrean ikusgai uztea, eta behin betiko onartutzat jotzea, baldin eta denboraldi horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten.

### **2.2.- 2/2020 Errege Lege-Dekretua; sektore publikoko pertsonalaren ordainsarien igoera**



## DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

2020/01/22an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 2020ko urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege-Dekretua; horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatu Errege Lege-Dekretuaren 3. bi artikulua honela dio:

*“2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneousunaren arabera bi aldiatarako, langileei dagokienez nahiz haien antzintasunari begira. Xede horretarako, 2019ko ordainsarrietan, BPGd-aren bilakaerari lotutako ehuneko 0,25eko gehikuntza urteko zenbatekotan hartuko da aintzat. Oro har, gizarte-ekintzako gastuek 2020an ezin izango dute izan gehikuntzarik 2019koekiko. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jo da, ez daukatenak zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, azken horien xedea zenbait premia asetzea baita, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.*

*Horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste % 1 igoko litzateke 2020ko uztailaren 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izango dira gehikuntzak oro har:*

*BPGd-a 2,1 bada: %2,20.*

*BPGd-a 2,2 bada: %2,40.*

*BPGd-a 2,3 bada: %2,60.*

*BPGd-a 2,4 bada: %2,80.*

.....”

Artikulu honen arabera, eta Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatutako artikulua lehen paragrafoari dagokionez, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, Mankomunitateko langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, % 2, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.
2. Bestetik, aipatu artikulua bigarren paragrafoari dagokienez, %1 arteko soldata-igoera gehigarria ere onartzea, 2020ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, baldin eta BPGd-aren bilakaera parametroak betetzen baldin badira.
3. Portzentaje berean igotzea dedikaziodun Juntakideen soldatak.

### **2.3.- Foru Kontratazio Zentrala**

- a) **Eraikinen auditoretza energetikoak egiteko kontratazio espedienteari atxikitzea**



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegokion hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, eraikinen auditoretza eta ziurtapen energetikoak egiteko kontratazio espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere bere eraikinen auditoretza eta ziurtapen energetikoak egin behar dituenek, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Eraikinen auditoretza eta ziurtapen energetikoak egiteko Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.
3. Baimena ematea lehendakariari Mankomunitate honi dagokion kontratu eratorria esleitzeko.

### **b) Hainbat kontratu luzatzea**

#### Segurtasun sistemen eta suteen aurkako babeserako sistemak mantentzeko kontratuak

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak, 2017ko martxoaren 30eko foru aginduaren bitartez, zera erabaki zuen: "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez suteen eta intrusioaren aurkako sistemen mantenimendu zerbitzua kontratatzeke esparru akordioaren" 1. lotea BABESA SUZAI, S.A. enpresarekin burutzea, hau da, sua itzatzeko ekipoak, eta 2. lotea SABICO SEGURIDAD, S.A. enpresarekin, hau da, suteen eta intrusioaren aurkako sistemak.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordioetatik eratorritako kontratuak esleitu zituen. Kontratu hauek bi urteko indarraldia dute, 2017ko ekainaren 15etik aurrera, bi luzapen egiteko aukerarekin, bakoitza urtebetekoa.

Esparru Akordio hauek beste urte betez luzatzea proposatu denez, eta Mankomunitateak kontratatzen den zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagozkien kontratu eratorrien iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Beste urtebetez luzatzea (2. luzapena), 2017ko ekainaren 15ean BABESA SUZAI, S.A. eta SABICO SEGURIDAD, S.A. enpresekin sinatutako 1. eta 2.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

loteetako kontratu eratorriak suteen eta intrusioaren aurkako sistemen mantenu zerbitzua emateko.

### **2.4.- Mankomunitatearen hainbat aseguru kontratatzeko espedientea; eskaintza bakarra**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2019ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Mankomunitatearen hainbat aseguru kontratatzeko espedientea, gastua eta Administrazio-Klausula Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuen.

Kontratu hau hiru loteetan banatu zen:

- 1. LOTEA: Debagoieneko Mankomunitatearen ondarea osatzen duten higieinei egindako kalteen gaineko aseguria (edukitzailea eta edukia).
- 2. LOTEA: Ondarezko Erantzukizun Zibileko Asegurua, Mankomunitateari – jabari publikoko eta ondarezko ondasunen titular gisa eta zerbitzu publikoen emaile gisa– hirugarrenen aurrean egotz dakioken erantzukizunaren gainekoa, turismoaren inguruan ekitaldi publikoak antolatzearen ondorioz egotz dakioken erantzukizuna barne; horien artean: bisita gidatuak, bildotsak burruntzian erretzea, ikuskizunak, mendi ibiliak, etab.
- 3. LOTEA: Ingurumen arloko Erantzukizun Zibileko aseguria, Mankomunitateari, Epeleko hondakin ez-arriskutsuen hondakindegian izan litezkeen kalteen ondorioz, egotz lekioken erantzukizunaren gainekoa.

Horretarako emandako epean proposamen bakarra aurkeztu zen 1. loterako, AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS. 2. eta 3. loteetarako berriz, ez zen proposamenik aurkeztu.

Lizitatzailerak bere “B” gutun-azal elektronikoan jasotako proposamen ekonomikoa eta balorazio automatikoko beste irizpide batzuei buruzko dokumentazioa aztertu eta aurkeztutako proposamenak pleguetan jasotako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Kontratazio Mahaiak, kontratu honen 1. lotea aipatu enpresari esleitzea proposatzen du, esleipenerako dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta 2. eta 3. loteak huts deklaratzeko.

Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. AXA SEGUROS GENERALES S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresari hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 18, 4<sup>o</sup> klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.
3. Kontratuaren 2. eta 3. loteak huts deklaratzeko.



## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

### **2.5.- Behin betiko berme bat bueltatzea**

Ondoren zehazten den behin betiko bermea itzultzeko espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- Ondorengo bermea itzultzea:

1.- Enpresa: ARRIZABAL ELKARTEA, S.L.

Kontratua: Edukiontzia garbitzeko ibilgailu batez hornitzeko kontratua. (2018).

Zenbatekoa: 3.417 €.

### **3.- INGURUMENA**

#### **3.1.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa; alta egoeran dagoen garraio zerbitzua emateko kaltetutako Mankomunitateekin sinatzeko lankidetz hitzarmen eta konpentsazio proposamena**

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak proposatutako lankidetz hitzarmena aztertu ondoren, eta

#### **Ondorengo arrazoiak kontuan hartuz:**

2007ko martxoaren 14ko datarekin, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Debagoiena, Debabarrena, San Marcos, Sasieta, Urola Erdia, Urola Kosta eta Tolosaldeko Mankomunitateen artean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeko lankidetz hitzarmena sinatu zen. Hitzarmen honen bosgarren klausularen azken paragrafoak honela dio: *“2009ko uztailaren 17tik aurrera, Akei transferentzi-estazioaren titularitatea eta kudeaketa Kontsortzioaren esku geratuko dira, laugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan. Egun horretatik aurrera Kontsortzioa arduratuko da Debagoiena eskualdeko hiri hondakinen bideraketa sarearen transferentzia eta garraioaz. Akei plantaren bizialdi erabilgarria bukatzen denean, Kontsortzioak oraingo planta birmoldatzeari ekingo dio; edo bestela, planta berria eraikiko du Debagoiena eskualdean”.*

Hitzarmen honetan jasotakoa betez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, Arrasateko Udalak eta Mankomunitate honek, 2009ko uztailaren 15ean, Akeiko transferentzi-estazioa erabiltzeko eta hiri hondakinen goi kudeaketarako garraioa koordinatzeko lankidetz hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen honen zazpigarren klausulan Kontsortzioaren ondorengo betebeharra jasotzen zen: egokitzapen urbanistikoa egin eta lurzorua eskuratzen zirenetik aurrera hemezortzi hilabeteko epean Epelen transferentzi estazio berria eraiki eta martxan jartzea.

Kontsortzioak azken obligazio hau bete ez zuenez, bere lehendakariak, 2017ko urtarrilaren 31ko idatzi bitartez, Akeiko transferentzi estazioaren erabilera baimena bukatzeaz zegoela, Debagoieneko Mankomunitateari ondorengo eskatu zion:



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

*"... Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren proiektu batean aztertzen ari da lurraldeak zer transferentzia estazio behar dituen, eta zer konpentsazio eman beharko litzaizkiekeen eskualdean estazio bat ez izateagatik hondakinak eskualde mugakideetara eraman behar izaten dituzten mankomunitateei Proiektu hori –eta dagozkion konpentsazioak- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan izapidetu eta onartu bitartean, eskatzen dizugu behar diren erabakiak har ditzazula aipatutako egunaren -2017ko otsailaren 17a- biharamunean zure mankomunitateak Elgoibarko Transferentzia Estazioa eraman ahal ditzan hiri hondakinak..... Zure laguntza eskertuz, adeitasunez."*

Laguntza eskaera hau zela eta, beti ere Kontsortzioko lehendakariak agindutako konpentsazio ekonomiko horren zain, Debagoieneko Mankomunitateak, zegokion prozedura jarraitu ondoren, une hartan indarrean zeukan etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua emateko kontratu administratiboa aldatu zuen, hondakinak Elgoibarrera eraman ahal izateko, honek eragin zuen kosteigoerarekin.

Arrazoi hauek direla eta, Mankomunitateko Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Kontsortzioak proposatutako hitzarmena sinatzea baldin eta Mankomunitate honi dagokion garraioaren konpentsazioa 2017ko apirilaren 1etik aurrera aplikatzen bada, data horretan hasi baitzen Mankomunitatea Elgoibarrerako garraioa egiten.

#### **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

##### **Enplegua eta Prestakuntza**

##### **4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; luzapen bat eta fidantza bat bueltatzea**

- Luzapen bat: J.J.I.Y. (Pruna Capital SLU)

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Beste urtebetez, hau da, 2021eko urtarrilaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 3-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, J.J.I.Y. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2017ko urtarrilaren 17ko erabaki bitartez.

- J.F.A.O. (Hordago); fidantza bat bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedienteak ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

- J.F.A.O. ekintzaileari bere egunean jarritako 557,22 €-ko fidantza bueltatzea.

### 5.- LEHENDAKARITZA

#### 5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**19/75.-** 19/24 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (489.566,64 €).

**19/76.-** Gurutze Martinez langileari 5.409,11 €-ko mailegua ematea, 24 hilekotan itzuli beharko duelarik.

**19/77.-** 1.- Poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratuaren 1, 2 eta 4 loteak ID WASTE, S.L. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- 1 lotea, 10 litroko poltsak: 0,039 €/unitatea, gehi 0,082 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- 2 lotea, 40 litroko poltsak: 0,1295 €/unitatea, gehi 0,0272 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- 4 lotea, 120 litroko poltsak: 0,310 €/unitatea, gehi 0,065 € BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratuaren 3 lotea, 60 litroko poltsak, ALQUI-ENVAS, S.L. enpresari esleitzea ondorengo prezioan: 0,274 €/unitatea, gehi 0,057 €, BEZaren %21ari dagokiona.

3.- Kontratu honen aurka kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jar daitekeenez, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaillei bidali eta hamabost egun baliodun igaro aurretik.

4.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

**19/78.-** 19/25 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HAMAR MILA BERREHUN ETA BERROGEI EURO ETA BOST ZENTIMO (210.240,05 €).

**20/01.-** - Bergarako Fernando Baptista Rodriguez jaunari 60 euroko isuna jartzea Debagoienean etxeko hondakinak biltzea arautzen duen ordenantzaren 82.3 artikulua a) eta c) ataletan jasotako arau-hauste arin bat egiteagatik, zehapen-espeditente hauek disuasio-izaera dutela kontuan hartuta.

Interesdunari ohartaraztea isunaren zenbatekoa nabarmen handituko dela (600 €) berriro eginez gero. "



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**20/02.-** - Pasaiako Udaleko lan poltsa erabiliz Mankomunitate honetan Ingurumen Zerbitzuko hainbat behin behineko lan eta ordezkapen egin dituen OIHANA GURRUTXAGA IRIBAR izendatzea bitarteko funtzionario, 2020ko urtarrilaren 7tik aurrera, aipatu informatzaile-teknikariaren ordezkapena egiteko, bere amatasun baimena bukatu arte. Dena den, izendapen hau gehienez ere informatzaile-teknikari bi lanpostu betetzeko hautaketa prozesua bukatu eta behin betiko betetakoan bukatutzat emango da. Hileko 2.181,01 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:

- Soldata: 749,37 €. (C1)
- Lanpostu-mailako osagarria: 393,87 €. (17)
- Berariazko osagarria: 1.037,77 €.

**20/03.-** 20/01 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA HAMALAU ZENTIMO (359.872,34 €).

### **6.- GALDE-ERREGUAK**

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

**LEHENDAKARIA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**